

KONTRATAZIOAK

Elkarte bakoitzarentzat zer motatako kontratazioa den komenigarriena hainbat aldagaien arabera erabakitzen da, esate baterako, familiek zenbateko ahalbide ekonomikoak dituzten, zer-nolako jarduerak gauzatu nahi diren, zer gune eta denbora egongo diren lanerako, etab.

KONTRATU MOTAK:

- 1.- Boluntarioak
- 2.- IGEak soldatapeko langileak kontratatzea
- 3.- Enpresa espezializatuak kontratatzea
- 4.- Profesional autonomoak kontratatzea

Adingabeekin harreman zuzena duten guztiak **Sexu-izaerako Delituen Ziurtagiri Negatiboa** aurkeztera behartuta daude kontratua sinatzerakoan edo jarduerari ekiterakoan.

BOLUNTARIOAK

·Boluntarioek ezingo dute ordain ekonomikorik jaso ez IGEtik, ezta bere langintzarekin zerikusia dutenen pentsengandik ere.

·Boluntarioaren eta IGEaren arteko harremana Boluntarioei buruzko Euskal Legeak arautuko du.

·Ezin da inolako ordain ekonomikorik izan, jarduerarako egin behar izandako gastuen truke jasotakoak salbuetsita; gastu horiek egiaztatu egin beharko dira ordaindu ahal izateko. Halakotzat jo daitezke, kasu baterako, hauek: garraio-gastuak jarduera-lekura joateko eta bertatik itzultzeko, egin behar izan diren otorduak, boluntarioak behar izan duen edo dituen materialak, etab.

·Boluntarioarekin hitzarmen bat sinatu beharko da haren eta elkartearen betebeharrak eta konpromisoak zehateko.

·Boluntarioei buruzko Euskal Legeak xedatzen duenez, boluntario-lanetarako istripu-asegurua eduki beharko dute boluntario guztiek. Aseguru hori BIGEk kontratatzen du elkarte federatu guztientzat, zuen elkartearen boluntario-lanetan ari direnak nortzuk diren jakinarazten badiguzue, betiere.

Gure web-orrian aurkitu dezakezue boluntarioekiko [hitzarmenaren eredu bat](#).

IGEAK SOLDATAPEKO LANGILEAK KONTRATATZEA

Kasu horretan, indarrean dagoen lan-legeria izan beharko duzue kontuan.

•**Kontratua:** kontratu bat sinatu beharko da langilearen eta IGEaren artean. Elkarrearen presidentek sinatu behar du elkarrearen izenean.

Kontratazioa hainbat ikasturtetan egiten bada, eta beti jarduera berean, kontratatutako pertsona finko etenduna izatera igaroko da.

Lan-kontratuak 10 urtez eduki behar dira gordeta.

•**Soldata:** IGEak erabakiko du soldata, baina betiere dagokion hitzarmena edo lanbide arteko gutxieneko soldata kontuan hartuz, alde batera utzita zenbat ikaslek egiten duten jarduera.

•**Ordaintzeko modua:** nomina bat sortuko da hilero, langileak sinatuko du nomina hori eta kontu korrontean sartuz edo txeke bidez (jaso izanaren adierazpenarekin) ordainduko zaio langileari.

•**Gizarte Segurantzza:** langileari alta eman behar zaio Gizarte Segurantzzan, dagokion kuota ordainduz.

•**Ogasuna:** hileko nominari ehuneko bat kendu behar zaio PFEZrako. Zenbateko hori hiru hilean behin ordainduko zaio Ogasunari, izapide administratiboa eginez.

•**Kontratuaren amaiera:** lan-harremana burutzen denean, hari dagokion kitapena ordaindu beharko du IGEak.

IGEAK SOLDATAPEKO LANGILEAK KONTRATATZEA

·**Bajak:** langile bat bajan egonez gero, IGEak jakinarazi egin behar dio hori Gizarte Segurantzari, eta gainera ordezeko bat kontratatu behar du.

·**Laneko arriskuen prebentzioa:** Legezko betebeharez, laneko arriskuen prebentzioa gauzatu behar da jarduketari ekin aurretik. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa.

Izapide administratibo horiek guztiak (nominak, betebehar fiskalak, gizarte-segurantzarekiko betebeharrak, bajak, eta abarrak) gestoria baten bitartez egin litezke baldin eta zuzendaritza batzordean ez badago eginbehar horietaz arduratu daitekeen norbait.

ENPRESA ESPEZIALIZATUAK KONTRATATZEA

Kontratazio-formula horrek IGEari gainera kentzen dizkio izapide jakin batzuk, enpresa espezializatuaren eskuetan utziz administrazioaren eta kontratazioaren kudeaketa. IGEak jarduketan antolamenduaren arduraduna izaten jarraituko du, eta berak erabakiko ditu zerbitzu-enpresarekiko harremanak.

Hona hemen gorabehera garrantzitsuenak, kontuan izan beharrekoak:

•**Kontratua:** zerbitzuen errentamendu-kontratu bat sinatu beharko da IGEaren eta enpresaren artean. Gure web-orrian aurkituko duzue kontratuaren eredu bat.

Oso garrantzitsua da kontratuan kontuan izatea:

- Kontratuaren amaiera-data. Garrantzizkoa da zuek kontratuaren amaiera-data zehaztea, batzuetan luzapen automatikoa izan baitezake.

- Iraungi baino lehen kontratua amaitzeko baldintzak, IGEak zehapen ekonomikoak izan ditzakeelako kontratua eteteagatik.

Ordainketa-modua jardundako orduen edo hilean emandako orduan arabera izan behar du, IGEari faktura eginez. Fakturak BEZik ez badu, enpresa salbuetsita dagoelako, fakturan adierazi beharko du, salbuespena funtsatzen duen foru-legea eta artikulua zehaztuz.

Konfinamendu batera itzultzeagatik edo elkartearen manukoak ez diren zergatiengatik jarduerarekin jarraitu ezin delako jarduera eteteko aukera aintzat hartuko duen klausula bat, finkatuta nola egingo diren zertu gabeko jarduketei dagozkien itzulketak.

ENPRESA ESPEZIALIZATUAK KONTRATATZEA

Gure web-orrian aurkitu ahalko duzue zerbitzuen errentamendu-kontratu baten eredia: <https://www.ehige.eus/eu/bige-dokumentuak-kudeaketa-eta-antolakuntza/>

•**Gizarte Segurantzaren:** IGEak ez du egin beharko izapiderik. Gomendagarria da enpresari eskatzea Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuta dituela frogatzen duen egiaztagiria. Garrantzitsua da gurekin ari den monitorea behar den moduan Gizarte Segurantzaren alta emanda dagoela egiaztatzea.

•**347 EREDUA – Ogasuna:** Zuen elkarteak, urte naturalean zehar, zerbitzu-hornitzaile batekin kontratatzen baditu gutxienez 3.005,06 euroko (BEZa barne) jarduketak edo hornidurak, 347 eredu hori aurkeztu behar zaio behar bezala konplinita Bizkaiko Foru Ogasunari.

•**Bajak:** kontrataturiko enpresa arduratzen da langileen bajak ordezkatzeko.

PROFESIONAL AUTONOMOAK KONTRATATZEA

•**Kontratua:** gomendagarria da zerbitzuak emateko kontratua sinatzea IGEa eta profesionalaren artean. Zerbitzu-enpresarekin bezala, kontuan hartu beharko dituzue hauek: kontratuaren amaiera-data, etete-kasuetarako baldintzak, eta jarduera uzteko klausulak.

•**Ogasuna / Gizarte Segurantza:** Jarduera profesionala legalki egiten dutela bermatzeko, IGEak honako hauek eskatu ahalko dizkie:

Profesional moduan EJZ-Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda egotea.

Langile Autonomoen Erregimen Berezian edo, aukera izenez gero, Elkargoaren Mutuan alta emanda egotea.

Foru Ogasunarekin eguneratuta dagoela adierazten duen ziurtagiria.

Gizarte Segurantzarekin eguneratuta dagoela adierazten duen ziurtagiria.

IGEak sartu egin behar du, hiruhileko natural bakoitza amaitzean (apirilaren, uztailaren, urriaren eta urtarrilaren 25ean) eta 110 ereduari jarraikiz, atxikipeneko zenbatekoan adierazpena eta aurreko hiruhileko naturalari dagozkion konturako sarrerak.

Urtarrilean 190 eredua bete behar da eta hark ematen du langile autonomoari eman behar zaion 10Ta.

•**Ordaintzeko modua:** kontzeptua eta zenbatekoa adierazten dituen faktura bidez egingo da, dagokion BEZa gehituz, aplikagarria bazaio, eta % 15eko atxikipena eginez (% 7 jarduera profesionalaren lehen bi urteetako bada).

•**Bajak:** Profesionalak baja bat hartu behar badu, IGEak hartu beharko du beste monitore bat kontratatzeko ardura.